

## Allurralde Kiroletako Udal Patronatua

### Patronatuko lehendakaria

---



**Ana Carrere**



**Ordezkoa:** Ainara Rodriguez

- Zuzendaritza eta eskumenak.
- Kiroldagiko estatutuak

### Zuzendaritza Batzordeko kideak

---



**Maider Lainez**



**Ordezkoa:** Ascensión Parrón



**Mari Jose Izagirre**



**Ordezkoa:** Imanol Goenaga



**Olga Hernandez**



**Jorge Fernandes**



### Eta elkarte/erakunde hauetako kide bana:

- Gazteleku Pilota Elkartea.
- Andoain Txirrindularitza Eskola.
- Ondarreta ikastetxea.
- La Salle-Berrozpe edo Ikastola Aita Larramendi (agintaldi honetan Ikastolari dagokio)

### Patronatuaren helburuak

- Andoaingo Udalerrian kirol ekintzen garapena bultzatzea, ikuspegi orokor baten barne burutzen diren ahalegin eta ekimen guztiak koordinatuz, eta beti ere erakunde bakoitzari dagozkion ahalmenen kalterik gabe.
- Hiritar guztiak kirolaren bidez bizimodu osasuntsu batez gozatzeko duten eskubidea gauzatzeko beharrezkoak diren jarduera oro egitea, arrea berezia eskainiz zailtasunak edota baliaezintasunak dituzten kolektibo horiei.
- Kirol instalakuntza mota oraren sustapena, eta halaber, Udalaren jabetzako direnak zaindu, konpondu eta administratzea.
- Herritar guztiengana zuzenduz eta inolako irabazi asmorik gabe, kirola bideratu eta eragitea.
- Kirol jarduerak finantzatzearren, edozein jatorrizko ekarpenak eskuratzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egitea.
- Kirolaren alorrean Udal honek agintzen dion beste edozein eginkizun.

### Patronatuko gobernua eta zuzendaritza organoak:

- a. Zuzendaritza Batzordea.
- b. Lehendakaria.
- c. Lehendakariordea.
- d. Zuzendaria.

Zuzendaritza Batzordea hizpidea eta boto eskubidea duten kide titularrez eta beste hainbat ordezkos osatuko da, honela:

Botoa emateko eskubidea duten kideak:

- Lehendakaria: Alkatea edo Osoko Udalbatzan berri eman ez eskuordetzen duen Zinegotzi-Delegatua.

Kideak:

- Udal ordezkariak duten talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi bat edo zinegotzia ez den herritar bat.
- Udalerrian dauden kirol klub edo erakunde federatuetatik bi ordezkari, haiek beren artetik hautatuak izango direnak.
- Udalerriko ikastetxeetako bi ordezkari, haiek beren artetik hautatuak izango direnak.

### Eskumenak

#### Zuzendaritza Batzordea:

1. Patronatuak kudeatu behar dituen zerbitzu eta eginkizun desberdinen Barne Erregimeneko Arauak eta funtzionamendu Arauegiak onestea eta Udalari aurkeztea, behin betirako onets daitezten.
2. Patronatura atxikitako ondasunak erabiltzea, eta beren hobekuntza, kontserbazioa, mantenua eta konponketarako behar diren obrak antolatzea.
3. Mota guztietako kontratazio eta esleipenak euren zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %0,30 gainditzen dutenean baina 3.100.100 euro baino gutxiagoak direnean; eta baita lau urte baino gehiagoko urte anitzetakoak ere, eta lau urtera iristen ez direnak ere, beti eta urte guztietako batutako zenbatekoak lehenengo aurrekontuko baliabide arruntekiko aipatutako ehunekoa gainditzen duen.  
Osoko Udalbatzaren onspena beharko da aipatu zenbatekoak baino gehiagoko kontratuak gauzatzeko.  
Obratako eta zerbitzuetako proiektuak onestea, kontratazio edo emakida hori gauzatzeko eskuduna denean, eta oraindik Aurrekontuetan aurreikusi gabe daudenean.  
Ondasun eta eskubideak eskuratzea, horiek Aurrekontuko ohiko baliabideen 100eko 0,30 baino gehiagokoak eta 300.000 euro baino gutxiagoak direnean. Zuzendaritza Batzordeak gauzatuko ditu, halaber, ondare besterentzeak, ondoko balizko hauetan:
  - a. Balio historiko edo artistikoko ondasun gisa aitortuta dauden eta Aurrekontuan aurreikusi gabe dauden ondasun higikor nahiz higiezinak.
  - b. Aurrekontuetan aurreikusita egonik, ondasunak eskuratzeko zenbatekoak eta portzentajeak gainditzen dituztenean.Osoko Udalbatzaren baimena beharko da aipatu zenbatekoak baino gehiagoko ondasunei buruzko kontratuak gauzatzeko.  
Era berean, ondasunak doan eskuratzen direnean, eta horrek kostubidezko baldintzaren edo modalitatearen bat duenean atxikita, Tokiko Gobernu Batzarraren onspena beharko da.
4. Zerbitzuarenak diren ondasunen probetxamendurako emakidak gauzatea.
5. Agindu zaizkion zerbitzuen erregimen eta administrazio eginkizunetarako ordezkariak eta delegazioak onestea.
6. Patronatuko Aurrekontuen Proiektua onestea, Udal Batzarrak onets ditzan, eta aipatutako aurrekontuok ekitaldi bakoitzean garatea.

7. Eskaintako Zerbitzuei aplikagarri zaizkien prezio publikoak Udalari proposatzea, dagokien Ordenantza Fiskalen bitartez.
8. Langileriaren plantila Udalaren onespenera jartzea, esandako plantila horren arabera izendapenak, igoerak, irazpenak eta ordainsariak erabakiz, indarrean dauden lege xedapenek eta Patronatu honetako erabakiek ezartzen dutenarekin bat etorritik.
9. Ekintza mota guztiak estatutu hauetan ezarritako lamak juridikoen arabera gauzatzea.
10. Patronatuaren inbentarioa eratu eta iraun araztea, Entitate Lokalen Ondasunen Arautegian xedatutakoarekin bat etorritik, eta Udalari jakinaraziz.
11. Profesional, espezialista, enpresa, erakunde, eta oro har, pertsona fisiko eta juridikoekin, bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren eta guztietako zerbitzu pertsonalen prestazioa kontratatzea.
12. Urteko jarduketaren egutegiari dagozkion Jarduketa Oinarriak, Programak eta Proiektuak onestea, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran, burututako lanaren txosten bat gauzatzea, baita bere ekonomi kudeaketaren berri ematea ere, bidezko den dokumentazioa Udalari igorritik.
13. Estatutu hauen aldaketa Udalaren onespenera jartzea.
14. Helburuak eta Patronatuari atxikitako zerbitzuen ohiko funtzionamendua lortzearen, beharrezko diren gainerako ahalmenak gauzatzea.

### **Patronatuko Lehendakaria:**

1. Bere Batzordeko bileretarako deiak egin, bertan buru izan, haiek bukatutzat eman eta esekitzea, eztabaidak zuzendu eta bere boto kalitateaz berdinketak alde batera edo bestera erabakitzea.
2. Edozein Epaitegi, Auzitegi, Aginte, Korporazio eta Erakunderen aurrean Patronatuaren legezko ordezkariak betetzea.
3. Zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskaritza nagusia betetzea.
4. Batzordeko erabakiak betetzeko beharrezkoak diren xedapenak ematea.
5. Pertsonalaren buruzagitza nagusia betetzea.
6. Kudeatzailearen laguntzaz Aurrekontuaren Proiektua burutzea.
7. g81/86 E.D. Legegilearen 436.artikuluaren ezarritakoarekin bat etorritik, ordainketa egitea.
8. Patronatuarentzat obligazio diren hainbat agiri eta ekintza sinatzea.
9. Larrialdietan zuzenbidezko eta administrazioko ekintzak burutzea, Zuzendaritzako Batzordeari bere lehendabiziko bileran horren berri emanez.
10. Mota guztietako kontratazio eta esleipenak euren zenbatekoak aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 0,30 gaitzen ez duenean; eta baita lau urte baino gehiagokoak ez diren urte anitzetakoak ere, beti eta urte guztietako batutako zenbatekoak ez badu gaitzen aipatutako ehunekoa lehenengo aurrekontuko baliabide arruntekiko. Gastua gauzatzeko modua urtero zehaztuko da aurrekontuaren burutzapenerako arauan.

Obratuko eta zerbitzuetako proiektuak onestea, kontratazio edo emakida hori gauzatzeko eskuduna denean, eta Aurrekontuetan aurreikusita daudenean.

Ondasun eta eskubideak eskuratzea, horiek Aurrekontuko ohiko baliabideen 100eko 0,30 baino gehiagokoak ez direnean. Lehendakariak gauzatuko ditu, halaber, ondare besterentzeak, ondoko balizko hauetan:

  - a. Ondasun higiezinak, Aurrekontuan aurreikusita daudenean.
  - b. Ondasun higikorak, balio historiko edo artistikoko ondasun gisa aitortuta egonik Aurrekontuan aurreikusi gabe daudenean izan ezik.
11. Egoeraren larritasunak Batzorderako deia egitea galarazten duenean, presakako neurriak hartzea, aipatutako Batzordeari horren berri emanez.
12. Zuzendaritzako Batzarkideen artean Lehendakariordea izendatzea.
13. Zuzendaritzako Batzordeak eman liezaiokeen beste edozein eginkizun.
14. Aurrekontuko Kontu Orokorra eta Ondarearen Administrazio Kontua azaltzea.